

GAZTEDI/A PLANEN edo KONTUEN TITULARRAK DIREN BEZEROEN ARTEAN EGINGO DEN 50 ORDENAGAILU ERAMANGARRIREN ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Kutxabankek ekintza komertzial bat garatuko du lurralde nazionalen. Ekintza honetan, adin txikikoak diren Kutxabankek bezeroek parte hartzeko eskubidea izango dute, betiere oinarri hauetan zehazten diren baldintzak betetzen badituzte. Kutxabankek langileen lehen mailako ondorengoak sustapen honetatik kanpo garatuko dira.

Zozketaren helburua publizitatea eta sustapena egitea da; hortaz, parte hartzaileek ez dute gainpreziorik edo tarifa osagarriak ordaindu beharko.

2.- 50 ordenagailu eramangarri zozkatuko dira. Hona hemen ordenagailuen ezaugarriak:

LG GRAM 14Z90N-VAP52B Windows 10 Home ORDENAGAILU ERAMANGARRIA
Eramangarria: ultrarina, 35,5 zentimetrokoa (14"), FHD IPS (kg 1, 18'5 orduko autonomia, 10. belaunaldiko Intel i5, Iris 655 Graphics, 8 GB RAM, 256GB SSD NVMe) eta zilar kolorekoa.

3.- Baldintza hauek betetzen dituzten Kutxabankek bezero guztiek parte hartu ahal izango dute zozketan:

- 2003/01/01 eta 2016/01/01 bitartean jaiotakoak (bi datak barne), eta 2020ko azaroaren 30ean Kutxabanken Gaztedi Plan / A Plan / Gaztedi Kontu / A Kontu aktibo baten titular direnak.
- Gaztedi/A Planaren kuoten plana etenda ez izatea.
- Gaztedi/A Kontuaren kasuan, 2019/11/30etik 2020/11/30era gutxienez 2 diru-sarrera egitea.
- Ordezkariek Kutxabanken bezero izatea 2020ko azaroaren 30ean.

4.- Gaztedi/A Kontu edo Plan berean 2 ordezkeri baleude, parte-hartze txartel gehien dituen ordezkeriarenak hartuko lirarteke kontuan. Parte-hartze txartel horiek Gaztedi/A Plan edo Kontuan agertzen den beste ordezkeriarekin osatuko dira, azken horrek lehenengo ordezkeriak ez dituen eta parte-hartze txartelak eskuratzeko aukera ematen duten produktu eta zerbitzuak kontratatuta baditu.

5.- Parte-hartze txartelen kopurua kalkulatzeko, ordezkeriek Kutxabanken kontratatuta dituzten produktu eta zerbitzuak kontuan hartuko dira, jarraian zehazten den moduan:

- Nomina, langabezia-saria edo autonomoen ordainagiria helbideratuta...30 parte-hartze txartel
- Kutxabank txartelen kontsumo orokorra azken 12 hiletan > 3.000 €.....5 parte-hartze txartel
- Kutxabank aseguruak.....5 parte-hartze txartel

5 parte-hartze txartel emango dira aseguru hauetako edozein kontratatuta izateagatik:

- Mailegua amortizatzeko Kutxabank bizi-asegurua
- Mailegua amortizatzeko Kutxabank bizi-aseguru babestua
- Bizi Asegurua
- Plus Bizi Asegurua
- Oro Bizi Asegurua
- Etxe Asegurua
- Estra Etxe Asegurua
- Kutxabank Etxe Aseguru Babestua
- Ordainketak babesteko Kutxabank aseguria
- Osasun Asegurua
- Auto Asegurua
- Saltegi Asegurua
- Kutxabank Ehorzketa Asegurua
- Hiruretako bakar bat ere kontratatu gabe.....parte-hartze txartel 1

Bezero bakoitzari emango zaizkion parte-hartze txartelen kopurua kalkulatzeko, 2020ko azaroaren 30eko egoera hartuko da kontuan.

Txartelen kontsumoa kalkulatzeko, berriz, bezeroak azken 12 hiletan (2019/11/30etik 2020/11/30era, biak barne) txarteekin egindako kontsumoa kalkulatu da, eta batura > 3.000 € bada, 5 parte-hartze txartel emango zaizkio. Azken 12 hiletako kontsumoa ez bada 3.000 eurora iristen, ez zaio parte-hartze txartelik emango.

Kutxabanken datu-basean jasotako informazioa erabiliko da parte-hartze txartelak esleitzeko.

Ordezkarri bakoitzaren parte-hartze txartelen kopurua kalkulatzeko, ordezkarri bera baina titular desberdinak dituzten Gaztedi/A Plan edo Kontu guztiak hartuko dira aintzat.

6.- Parte-hartze txartelak esleitzeko prozesua abenduaren 28tik urtarrilaren 4ra egingo da. Fitxategi bat sortuko da, eta bertan jasota geratuko da aurreko atalean aipaturiko produktu eta zerbitzuengatik bezero bakoitzari dagozkion parte-hartze txartelak. Parte-hartzeak bi letra eta lau zenbakiko serieak izango dira.

7.- Bezero bakoitzari dagozkion parte-hartze txartelak kalkulatzeko prozesua egin ondoren, bezero bakoitzari zenbat egokitu zaizkion jakinaraziko zaio Gaztedi/A Planaren/Kontuaren libretan edo laburpenean egindako ohar baten bidez.

Adibidea:

1. lerroa: ORDENAGAILUEN ZOZKETA

2. lerroa: XX0000tik XX0030era

8.- Edozein oker zuzentzeko epe bat zehaztuko da -urtarrilaren 11tik 15era-, bai eta bezeroak bere bulegoaren bidez jakinarazitako akatsak zuzentzeko ere. Behin epe hori amaituta, txartelen esleipenak baliiodunak izango dira, eta behin betiko fitxategi bat sortuko da, parte-hartze txartel bakoitza zenbaki ordinal batekin lotzeko.

9.- Partaidetza-bezeroen behin betiko fitxategiarekin 2021eko urtarrilaren 25ean egingo da zozketa, edo hurbileko beste egun batean, data horretan zozketa egitea erabat ezinezkoa balitz, Bilboko notario Vicente M. del Arenal Otero jaunaren aurrean. Fitxategiko lehenengo eta azkeneko aukeraren artean jasota dagoen zenbaki bakar bat aterako da ausaz. Zenbaki hori saritutako lehenengo aukera izango da.

Gainerako berrogeita bederatzi zenbaki sarituak zein diren jakiteko, bai eta ondoren erreserban geratuko diren hamar zenbakiak ezagutzeko ere, prozedura informatikoen bidez, lortutako zenbakiari honako hau batuko zaio: fitxategian dauden aukera guztien batura zati sari guztien kopurua (50), gehi erreserba kopurua (10); hau da, zenbaki saritua zati 60 egingo da, eta lortutako zatidura beherantz borobilduko da (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta), aukera saritu guztiak lortu arte (49 zenbaki metodo honen bidez), eta ondoren eragiketa bera egingo da erreserba-zenbakiak eskuratzeko (10). Ondorio hauetarako, fitxategiaren amaierara iritsiko balitz, kalkuluak erregistraturiko lehenengo aukeratik aurrera jarraituko luke, sarituriko (50) eta erreserban geratuko diren (10) zenbaki guztiak lortu arte. Kasu honetan, erreserbako zenbakiak lortzen diren azkenak izango dira.

Erabat ezinbestekoa balitz, Kutxabankek zozketa bertan behera utzi dezake, eta horren berri emango dio Gaztedi edo A Plan/Kontuan agertzen den lege-ordezkarietako bati.

10.- Pertsona bakoitzak sari bakarra lor dezake.

11.- Zozketaren emaitza Gaztedi Plan/Kontuan agertzen den lege-ordezkarietako bati jakinaraziko zaio, ondorio guztietarako, baita zerga-arlokoetarako ere. Jakinarazpena telefono, gutun edo mezu elektronikoen bidez egingo da, Kutxabankek datu hori baldin badauka. Erakundeak datu horiek ez dituelako bezeroa informatu ezin badu, saria hurrengo erreserbari esleituko zaio.

12.- Sariak ezingo dira beste sari baliokide batengatik edo eskudirutan duten balioarengatik aldatu, ezinbesteko kasuetan Kutxabankek kontrakoa erabakitzen ez badu behintzat.

13.- Kutxabankek erabakiko du bezeroei sariak nola eta non banatu.

14.- Bere lege-ordezkariaren bidez saritutako bezeroak fitxa bat sinatu beharko du saria onartzen duela baieztatzeko, sariduna dela jakinarazi eta hurrengo 15 egun naturaletan.

15.- Lehiaketan parte hartzearen ondorioz, parte-hartzaile sarituen datuak Kutxabanken Informazio Sisteman gordeko dira, eta haien izena, abizenak edo/eta irudia edozein publikitate edo sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, jarri, erabili edo zabaltzeko besterik ez dira tratatuko. Horrek ez dio interesdunari trukean ordainsaririk edo

etekinik eskuratzeko eskubiderik emango, saridunaren edo bere lege-ordez kariaren berariazko baimena baldin badauka erakundeak. Horrez gain, jakinarazten dugu datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia daukan edozein arazoren aurrean, kontrolerako agintaritzan erreklamazio bat aurkez daitekeela edonoiz. Halaber, datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, aurka agertu, tratamendua mugatu eta lekualdaketa eskatzeko eskubidea ere badago, bai eta datu pertsonalekin loturiko banakako erabaki automatizatuen parte ez izateko ere. Eskubide hauek guztiak idatziz gauzatu daitezke, Kutxabanken helbidera bidalitako jakinarazpenen bidez, edo posta elektronikoz, helbide honetara: info@kutxabank.es. Bi kasu hauetan, NANaren fotokopia bat erantsi beharko da. Zure datuak araudiak agindu bezala tratatu ez ditugula uste baduzu, Datuak Babesteko Ordez kariarekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com.

16.- Bezero saridunak, bere lege-ordez kariaren bidez, sariari uko egin ahal izango dio, baina ezin izango dio beste pertsona bati laga.

17.- Bezeroak sariari uko egin nahi baldin badio, idatziz egin beharko du eskaera, zozketaren emaitzari buruzko jakinarazpena jaso eta hurrengo 15 egun naturaletan. Bezeroak sariari uko egiten badio, ez du inolako ordainik jasoko. Saria hurrengo erreserbari esleituko zaio.

18.- Inolako jakinarazpenik jasotzen ez bada, saria onartzeko edo ez, eta bezeroari 7. puntuan aipatutako jakinarazpena bidali zitzaionetik 15 egun natural igaro badira, sariari uko egin diola ulertuko da. Horrenbestez, Kutxabankekin sariarekin nahi duen bezala jarduteko eskubidea izango du.

19.- Saria emateko, zozketan parte hartzen duen bezeroak zein bere lege-ordez kariak egunean izan behar dituzte ordainketak eta Kutxabankekin egindako eragiketa guztiak. Hortaz, zozketaren egunean, ez dute zorrik izan behar Kutxabankekin 2020ko azaroaren 30ean, mugaeguneraturiko posizio zordun eta likidoen ondorioz.

20.- Kanpaina honetako sariengatik sortzen den edozein zerga-arloko karga sarituak hartuko du bere gain.

21.- Notarioaren aurrean egindako oinarri hauek bezeroen eskura egongo dira Kutxabanken bulegoetan eta www.kutxabank.es webgunean.

22.- Zozketa honetan parte hartzean oinarri hauek onartzen dira, lehiaketaren mekanika zehazteko erakundeak ezarri dituen eta parte-hartzailearen berariazko baimena behar ez duten baldintzei dagokienez.

Bilbon, 2020ko azaroaren 15ean.